## ABESTIA: HURACAN (Hakuna group music)

https://youtu.be/IRUpYaRk5sc

Me he hecho tantas preguntas
Intentando entender
Me he lanzado a buscarte
Sin saberte ver
Me he asomado al abismo
Me he atrevido a saltar y caer

Y un huracán
Romperá el cielo desde mi garganta
Gritándote: “¿dónde estás cuando me haces falta?”
Y me han dado respuestas
Pero no sé qué hacer

He prometido seguirte
Sin entender
Y hay un eco en lo hondo
Que me empuja hacia ti
Y aunque sea sin sentirte
Te buscaré

Y un huracán
Romperá el cielo desde mi garganta
Gritándote: “¿dónde estás cuando me haces falta?”
Y un huracán
Romperá el cielo desde mi garganta
Gritándote: “¿dónde estás cuando me haces falta?”

Estoy aquí, en el silencio
Estoy aquí, en este viento
Estoy aquí, soy este trozo de pan
Estoy aquí, en tu lamento
Estoy aquí, en este eco
Estoy aquí, soy este trozo de pan

Y un huracán
Romperá el cielo desde mi garganta
Gritándote: “¿dónde estás cuando me haces falta?”
Y un huracán
Romperá el cielo desde mi garganta
Gritándote: “¿dónde estás cuando me haces falta?”

Estoy aquí (y un huracán)
(Romperá el cielo desde mi garganta)
estoy aquí
Estoy aquí (gritándote)
Soy este trozo de pan (“¿dónde estás cuando me haces falta?”)
Estoy aquí (y un huracán)
(Romperá el cielo desde mi garganta)
estoy aquí
Estoy aquí (gritándote)
Soy este trozo de pan (“¿dónde estás cuando me haces falta?”)
Y tu huracán

Romperá el cielo desde mi garganta
Gritándome cuánto me haces falta

Fuente: LyricFind

Haurtzaroko eta Nerabezarako Katekesiaren Gotzain Ordezkaritza

ETXEKO ELIZA

# ETORRI ETA IKUSI

## Otoitzean

Donostiako Gotzaindegia
Obispado de San Sebastián



## Hasi aurretik

Otoitz giroan ipuin bat irakurriko dugu familian. Ea zertara animatzen gaituen! Guztion artean pentsatu ta asmatzera gonbidatzen zaituztet.



## Ingurua girotu dezakegu

Mahai baten gainean kandela bat piztu dezakegu (Jainkoak argi egiten digula ikusarazteko eta bera ere gure artean dagoela adierazteko). Seme-alabei prestaketan laguntzeko eskatu diezaiekegu.

Ebanjelioa irekita: Joan 1, 35-39 orrialdean. Ipuina inprimaturik edo gailuren batean irakurtzeko prest.

Inguruan eseri eta haurrei ongi azaldu zer egitera goazen. Nolako giroa behar dugun eta nola egongo garen.

Sagar bat mahai gainean, ipuina gogorarazteko eta Biblia, Jesusen erakutsiak bertan ditugulako. (beste ikurren bat ere jarri nahi ba duzue, lasai: gurutzea, familia santua, erlijio ikurren bat)



## Ipuina irakurri: Jan zerorrek sagarra

**Behin ikasle batek maisuari kexaka honela esan zion:**

**“Beti kontu kontari ari zara, baina ez diguzu inoiz ere zer esan nahi duen agertzen”.**

**Maisuak honela erantzun zion:**

**“Norbaitek sagar ale bat eskaintzen badizu, gustatuko litzaizuke eman aurretik mastekatuko balizu?”**

**ANTHONY DE MELLO**
**Txoriaren Kantua**



## Gogoeta

Zenbat aldiz gertatzen zaigu, dena jakin nahi izaten dugu ahaleginik egin gabe! Eta ipuin txiki honek hori ikusarazi nahi digu: zerbait gustukoa dugun jakiteko, probatu egin behar dugula. Eta Jesusekin berdin gertatzen da.

Gaur egun jende askok alboratzen du Jesus, bera ezagutu gabe eta Eliza, ezagutu gabe. Agian Harengana hurbildu eta ezagutuko bagenu, Haren ondoan geratuko ginateke.

Jesus ezagutu nahi zuten lehenengo dizipuluei, Jordan ibaian bataioa jaso ondoren, Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue» (Jn 1,39), Bera ezagutzera gonbidatuz.

Gaur egun ere Bera ezagutzera gonbidatzen jarraitzen gaitu. Horretarako Ebanjelioak ditugu, bere hitzak eta irakaspenak jasotzen dituena. Anima gaitezen ezagutzera!



## Irakurketa

Jn 1, 35 - 39a

Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa».

Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten. Jesusek, atzera begiratu eta ondoren zetozkiola ikusirik, galdetu zien:

–Zeren bila zabiltzate?

Haiek erantzun:

–Rabbi, non bizi zara? (Rabbik «Maisu» esan nahi du).

Jesusek esan zien:

–Etorri eta ikusi.

Joan, non bizi zen ikusi eta berarekin gelditu ziren.



## Elkarrizketa

a. Zertara gonbidatzen gaitu ipuinean maisuak?

b. Jesusek irakurgaian zertara gonbidatzen gaitu?

c. Eta zer ateratzen duzu zuk gogoeta honekin?